

2020KO IRAILAK 26. 5G-aren AURKAKO MUNDUKO PROTESTA EGUNA

5G-aren moratoria eskatzeko Estatu mailako Koordinadora eta bere plan pilotua dugu hau. Asteburu honetan berriro elkartu gara Estatuko hainbat tokitan, irailak 25-26-27an.

5g MORATORIOA eskatzeko, mundu mailako deialdi globala dugu, zientzialari ugarien eskariarekin bat eginez. Elektromagnetismoaren etengabeko hazkundearekin kezkatuta eta horrek pertsonen osasunean duen eragina eta, oro har, bizitzeko sistemetan sortzen duen ziurgabetasunarekin larritasuna azaleratu nahirik.

Stop 5G International, boluntarioen elkarteak sustatutako ekimen hau, ikuspegi desberdinekin, baina alderdi politikoez gain, lotura gabea dena, **haririk gabeko teknologiaren kontrolik gabeko hedapena geldiarazteko eta gizartean berdintasunaren alde egiteaz gain, etorkizun teknologiko seguru eta jasangarria bermatzeko konpromisoan hartu nahi da.**

Aldaketa teknologiko hauek eragingo lituzkeen aldaketa sakonek, aurrez hausnarketa beharko lukete egina. Onurak eta arriskuak aztertu beharko lirateke. Beharrezkoa dela uste dugu, aldeaz aurretik, esponentzialki hazten ari diren faktoreei buruzko eztabaida zabala sustatzea. Batez ere **Estatu mailako koordinadora** honek ikusi dituen Ziber-ekintza jazarriaen inguruan:

1. Irrati-maiztasunen eraginpean egotea eta osasunean eta ingurumenean dituen ondorioak, 2G, 3G, 4g sareei 5G milimetro uhinen presentzia berria gehitzen baitzaie (gutxienez antena 1 100 metroko, honi gehitu 20.000 satelite gutxienez, gehi konektatutako milioika gailu eta artefaktu).

2. CO2 isuriak eta energia kontsumoa, non “inmateriala” izatetik urruti, klima aldaketa areagotzen du eta “planetako muga biofisikoak” gainditzen ditu, energia alternatiboak deiturikoak erabili arren.

3. Meatze erauzketa gehiegizkoa, industria digitalaren eskaera handiak areagotuko dituenak. Kutsaduraren ondorioak okertuaz, uraren urritzea, habitataren suntsiketaren, deforestazioa eta lehortea, flora / faunarengan inpaktua, baita pertsonen osasunean ere, etab.

4. Teknologiaren zaharkitzea eta hiperkontsumismoa, izan ere, gure bizitza errazteko eta hobetzeko promesarekin, behar berriak jazartzen ditu. 5G-rekin konektatutako hari gabeko milioika gailu sartuz (arropa, pixoihalak, etxetresna elektrikoak, erlojuak, pertsianak eta abar) gure eguneroko bizitzan. Horietatik, hondakin elektronikoen kopurua kalkulazina izango da, birziklatzen zailak diren hondakinak sortuko dira, kutsakorrak direnak.

5. Nekazaritza-abeltzaintza intentsibo ez jasangarria dena eta kutsagarria dena, “intentsifikazio jasangarria” eta “klima aldetik adimendun” gisa mozorrotuta, herrien elikadura burujabetza arriskuan jarriz eta abantaila eta botere gehiago kontzentratuz enpresa agro-teknologiko gutxi batzuen alde.

6. Zaintza eta kontrol soziala, lobby teknologikoaren potere kotzentratu erraldoiari zera gehitzen zaio: 5G-ra konektatutako “gauzen Internetetik” eta “gorputzen Internetetik” bilioika datu eta informazio pertsonalen bilketa automatikoa egin eta gizabanakoaren bizaren jarraipen monitorizatua erraztea. Orain arte inoiz ezagutu ez den zerbaite.

7. Mendekotasun teknologikoa eta mendekotasun jokabideak. Ahaztu gabe industria teknodigitalak tabako industriaren estrategia jarraitzen duela, bere produktuak mendekotasun handiagoa izan dezan eta gure portaera baldintzatu eta osasuna babesteko arauak ahalik eta gehien atzeratuaz. 5G / Gauzen Internet binomioak eguneroko eta ekonomia bizitzako menpekotasun teknologikoko prozesu desarautua du gailur, COVID-19ren garaian “Shock Doctrina”ren eraginez azkartua.

8. Meteorologiaren eta astronomiaren ohiko jarduna eragozten du. Munduko Meteorologia Erakundeak larria dela salatu du eta nazioarteko 2.000 astronomo baino gehiagoren dei internazionala ere hor da.

Estatuko koordinatzaile honetatik dei egiten degu zientzialari eta hainbat osasun langile profesionalen hainbat deildiri kasu egiteko, prebentzio printzipioa ezarri eta teknologia honen hedapena geldiarazteko:

- ISDE 5G Appeal (2018), Ingurumenaren aldeko Medikuen Nazioarteko Elkarte (ISDE), 38 herrialdetan dagoen medikuntza sozietatea, Suitzako gunean soilik 1.500 kide baino gehiago biltzen dituena.
- 5G Apeal, 2017an EBri zuzendua eta 380 zientzialari baino gehiagok sinatua.
- International Appeal Stop 5g on Hearth and in Space, MOEri eta NBEri, 290.000 pertsona baino gehiagok sinatuta (6.500 zientzialari baino gehiago, 4.000 mediku eta 3.000 erakunde).
- Astronomer’s Appeal (2020), 2.000 astronomo baino gehiagok sinatua.
- Electrosmog Appeal Belgium, Belgikako 1.000 osasun profesionalak, bertan 500 mediku baino gehiago.

5g sareen hedapena berehala gelditzeko eskatzen dugu. Aipatutako helegiteei, Arartekoaren eskakizunei (ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa, kautelazko printzipioaren aplikazioa, ...) eta “eremu elektromagnetikoen arrisku potentzialei eta ingurumenean dituzten efektuei buruz” Europako Kontseiluko 1815 ebazpenari erantzuteko eskatzen dugu. Biobateragarria den eta bizitzarekin eta planetako baliabideekin errespetuz jokatzeko duen teknologiaren erabilera gogoeta sustatzeko.

Horregatik, MORATORIA eta KAUTELAZKO PRINTZIPIOA aplikatzea eskatzen dugu. Industria iraultza berri bat sortuko duen teknologia inplementatu aurretik. Bestela aurrekoetan bezala, gure gizartea aldatu lezake, bere ondorio guztiak alde aurretik aztertu gabe. Eztabaida sozial, zabal, parte-hartzailea zabaltzea eskatzen dugu, interesen gatazketan erori gabe, egiazko informazioa eta ikerketa independenteak eskuratzeko. Kolektiboki eta kontzienteki erabaki nahi dugu ea hau den hurrengo belaunaldiei utzi nahi diegun mundua.

1. ERANSKINA: Ikusi munduko hainbat tokitan dagoeneko burututako proposamen edo neurri instituzional batzuk ondoko lerro hauetan:

Klimaren aldeko Herritarren Hitzarmena, izaera kontsultiboa eta ordezkaria duen Frantziako erakunde batek, “ingurumenean eta berrikuntzen trantsizio energetikoa sistematikoki aztertzea modu independentean” proposatu zuen eta “5G ezartzeari moratoria, klima eta osasunaren arloan 5Garen ebaluazioaren emaitzak jaso arte”. Ildo horretan, abuztuaren 1ean, **Korsikako Parlamentuko Batzarrak** jada 5G moratoria onartzea erabaki zuen. Irailaren hasieran **40 alkatek, baita Frantziako formazio politiko desberdinetako 30 diputatuk eta eurodiputatuek ere** beren manifestuan aldarrikatu zuten. Bertan, osasunari, klimari eta herritarren eskubide demokratikoei eragiten dien gaiari buruzko eztabaida demokratiko eta deszentralizatuaren falta antzematen dela eta. Manifestu honetatik nabarmentzen dugu:

- Frantziako Osasun Segurtasunerako Agentzia Nazionalaren 2019ko oharrean diote, teknologia horren balizko eragin biologiko eta osasunarekin zerikusia duten datuen gabezia nabarmena ikusi zuela.
- Aitortzen dute “5G uhinen emisioak aurreko teknologien, 4G, 3G eta 2G teknologiaren gainekoak direla, eta horrek populazioaren irradi-maiztasunetikiko esposizio maila handitzea suposatuko duela”. Era berean, “hiperkonektatutako objektuen ugaritzeak osasunean duen eragina zalantzan jartzeko” eskatzen dute larriki.
- Uste dute 5G iristek lehendik dauden hutsune digitalak okerrera egingo dutela eta udal autonomia eskatzen dute sare digitalen garapena kontrolatzeko eta ingurumenarekiko iraunkorrak diren eredu biobateragarriak (hala nola, zuntz optikoa) eta soiltasun digitalaren aldeko apustua egiteko.
- Klima eta gizartearen eragin dezakeern inpaktuaz, energiaren azelerazio esponentzialaz eta “berriztagarriak ez diren baliabide naturalak ustiatzeaz, metal arraroak ateratzean sortzen den kutsaduraz eta ia birziklagarriak ez diren edo zuzenean birziklagarriak ez diren hondakinen kantitatea sortzeaz” ohartarazten dute. 5G sarea eta haren konektatutako gailu anitzak hedatzean, beste gailuen zaharkitze teknologikoaz eta hiperkontsumismoaz ohartarazten dute, aztarna ekologikoa eta hondakinen pisua areagotzen delako.
- Berekin dakartzan bizimoduak zalantzan jartzen dituzte. Ohartarazten dute 5G-ra konektatutako objektuen hedapen masiboak nola laguntzen duen datu pertsonalak harrapatzen, erraldoi digitalen botere kontzentrazioa eta kontrol sozialaren alde.

Era berean, munduko beste leku batzuetan erreakzio instituzionalak birsortzen ari dira, 5G sareen hedapena gelditzen / eragozten edo ukatzen dutenak. Estatu Batuetan, Kalifornia eta Hawaii bezalako estatuak konderri eta hiri desberdinetatik, Belgikan (moratoria Bruselas hirian) , Eslovenia, Suitzako kantonamendu desberdinak, etab.

Italian: Ramazzini Institutuak (OMEren minbizia minbiziaren azterketan kolaboratzailea), Ingurumeneko Medikuen Elkarteak (ISDE Italia eta ASSIMAS) eta Nazioarteko Segurtasun Elektromagnetikoaren Batzordeak (ICEMS) babestutako **Vicovaro Ebazpena** oinarri izan zuten honako hauek; Italiako beste instituzio batzuen artean, **600 udalek ofizialki beren burua aldarrikatu zuten 5g ezartzearen aurka**, hiru eskualdek dagoeneko onartu dituzte bide hontako kautelazko mozioak.

Hendaiaiko Udalak, Frantziako Euskal Herrian, abuztuaren 26an bozkatu zuen 5G moratoriaren alde “osasunean eta ingurumenean eraginak azterketa zientifikoak amaitu ez diren bitartean”

Espainiako Estatuan, **Totanako Udalak** uztail honetan onartu zuen osoko bilkuran, **gobernu zentralari 5G moratoria eskatzea eta azterketa zientifiko-teknikoa egitea 5G Teknologiai igorritako irrati frekuentziek osasunean eragin txarrak dituzten ala ez argitzeko.**

2. ERANSKINA: Ikusi eskaera ekosozial honen erakunde sinatzaileak kanpainaren fase honetan:

Ekologistak Martxan eta auzo erakundeek sustatutako eskaera [Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid (FRAVM), Federació d'Associacions de Veïns i Veïnes de Barcelona (FAVB), Confederación de Asociaciones Vecinales de Asturias (CAVASTUR), Federación de Asociaciones Vecinales de Gijón, Federación de Asociaciones Vecinales de Oviedo (FAVO), Federación de asociaciones de Vecinos Rurales de Gijón "Les Caseries", Asociación Vecinal Familiar San Cristóbal (Madrid-Chamartín), Asociación Vecinal de Sol y Barrio de Las Letras (Madrid – Centro)]; **Persona gaixo eta kaltetuak** [Coalición Nacional de Fibromialgia, Síndrome de Fatiga Crónica, Sensibilidad Química Múltiple y Electrohipersensibilidad (CONFESQ, que integra asociaciones y federaciones de todo el estado); Asociación de niñ@s, adolescentes y jóvenes con Fibromialgia, Síndrome de Fatiga Crónica, Sensibilidad Química Múltiple y Electrohipersensibilidad (DOLFA); Asociación Electro y Químico Sensibles por el Derecho a la Salud (EQSDS); SOS EHS-EASC elkarte (Elektrohipersensibilitatea – Ingurumen eta Sensibilizazio zentraleko), SFC-SQM EUSKADI-AESEC elkarte (Euska Herriko Entzefalomielitis Mialgikoa/ Neke Kronikoaren Sindromea (ME / NKS), Sensibilitate Kimiko Anizkoitza (SKA), Fibromialgia (FM)Sensibilitate Elektronagnetikoa edo Elektrohipersensibilitatea EHS) kaltetutako pertsonen elkarte), Asociación de afectadas y afectados por Sensibilidad Química Múltiple de Galicia (SQM Galicia), Asociación de personas afectadas por Fibromialgia, Síndrome de Fatiga Crónica, Enfermedades Reumáticas y Sensibilidad Química y Electromagnética de Ibiza y Formentera (AFFARES); Asociación de Afectados por Síndrome de Fatiga Crónica / Encefalomiелitis Miálgica y Sensibilidad Química Múltiple de la Comunidad de Madrid (SFC-SQM Madrid), Plataforma Española de Personas Afectadas por los Síndromes de Sensibilización Central (PEPA), Bizi Bide (Gipuzkoako Fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea, Sensibilitate Kimiko Anizkoitza eta Elkrohipersensibilitatea)]; **de Plataformas STOP 5G** [Plataforma Stop 5G Segovia, Stop 5G Pamplona Iruñako Plataforma, Stop 5G Baleares, Stop 5g BCN (Barcelona), CONCIENCIA STOP 5G CANARIAS, Menorca Lliure 5G, Stop 5G Madrid, Stop 5g Almería, Stop 5G España, Stop 5G Zaragoza]; **Ingurumenaren alorrekoetatik, dekrecentistetatik, nazioarteko solidarizatit, hezkuntzatit, konsumitzaileengandik, ijito eta migrante komunitateetik, osasunaren defentsatik, eta kutsadura elektromagnetikoaren aurkakoetatik , ...** [Plataforma Estatal Contra la Contaminación Electromagnética (PECCEM), Asociación Murciana Contra la Contaminación Electromagnética (AMUCCEM), Plataforma Asturiana Contra la Contaminación Electromagnética (PACCEM), Eremu Elektromagnetikoen kaltetutako pertsonen Nafarroako Elkarte (ASANACEM), Asociación Vallisoletana de Afectad@s por las Antenas de Telecomunicaciones (AVAATE). Asociación Independiente para Defender la Salud (ASIDES), Informa.tu (Osasuna sustatu eta defendatzeko elkarte), Comité Oscar Romero de Vigo, Comité Óscar Romero de Valladolid, Comité Óscar Romero de Murcia, Asociación Nacional Presencia Gitana, Colectivo Emigrante Aragonés (CEA), Asociación Comunitat UJlxPlaneta, Ongd AFRICANDO de Gran Canaria, Asociación Bona Ona, Grupo ecologista Luita Verde (O Morrazo), Grupo de decrecimiento "Hasta aquí hemos llegado" (Palencia), Colectivo de acción e concienciación social de Val Miñor "Co-mando Ghichas", Plataforma en Defensa de lo Público (PLADEPU) de Castilla y León, Asociación para a Defensa Ecolóxica de Galiza (ADEGA), "Tubal" Euskadiko Gaixo Psikikoen Elkarte, Butroi Bizirik Transizioan (BBT), Associació Ensalut, Rede para o Decrecemento Eo-Navia Galiza O Bierzo, Red de huertos urbanos comunitarios de Madrid (ReHd Mad!), Extinction Rebellion Barcelona].